



**Ostiral honetan hasiko da
Euskaraldia**

**Orbeldi Dantza Taldeak
eta Korrontzik emanaldi
bikoitza eskainiko dute
larunbatean Sutegin**

**Hobari berriak
Gertu txartelarekin**



**Enpresen eta langileen egoera
gaiztotu egin da pandemiaren ondorioz**

USURBILGO JATETXE ETA TABERNEN ESKAINTZA ERAMATEKO ZERBITZUA ETA ETXERAKO ZERBITZUA

QR IRAKURTZEKO APLIKAZIOA
JEITSI ETA MENU ETA KARTA
ZUEN ESKURAI



jaso edo etxera!



karta



626 68 60 36



**karta eta eguneko
menua**



943 36 91 39



**karta eta eguneko
menua**



943 37 11 50

jaso edo etxera!



**karta eta eguneko
menua**



943 37 03 44



943 36 36 77  622 18 58 99

ORDUTEGIA: 09:00-13:00 15:00-19:00

EZAGUTU ITZAZU GURE ZERBITZUAK!!!

**·KARROZERIA MOTA GUZTIETAKO ERREPARAZIOAK ·AUTO-ARGIEN LEUNKETA
·AUTO-BEIRAREN ORDEZKATZEA ·LAPURKETEN KALTEEN KONPONKETA**

car.andatza@gmail.com



car.andatza

erota berri kalea 9 Usurbil

Albisteak iruditan

Ferrovialeko langileek “hitzarmen duin bat” adostu dute enpresarekin

Ferrovialekoek Michelinentzat egiten dute lan. Lau astez luza-tu diren mobilizazioen ondoren, akordio batera iritsi dira enpresarekin.

LAB sindikatuak aditzera eman duenez, “borroka honi esker, bi urterako enpresa-itun berria sinatu dute langileek. Itun horretan, Gipuzkoako hitzarmen berriaren edukia aplikatzeaz gain, eduki horiek hobetu dituzte, besteak beste soldata igoera handiagoak adostuta (KPI+1 eta KPI+0,5)”.

Mobilizazioei ekin aurretik ezarritako helburuak bete dituztela dio LAB sindikatuak. “Izan ere, multinazionalaren lanak azpikontratatzeko apustuaren aurrean, langileei antolatzea beste aukerarik ez zaie gelditzen, euren lan baldin-



Era askotako mobilizazioak egin dituzte azken asteotan. Argazkia: LAB.

tzak duintzeko”. Langileak zoriontzeaz gain, azpikontratetarako langileei euren

eskubideen alde antolatzeko deia egin die LABek.

Laburrean

617,28raino jaitsi da birusaren intzidentzia

Beharakada nabarmena asteburuan Usurbilen. Osasun Sailak 2 koronabirus kasu atzeman ditu ostiraletik igandera. 617,28raino jaitsi da 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia metatua.

Gripearen aurkako txertaketa

Urriaren 13tik hasiak dira jartzen gripearen aurkako txertoa, bereziki arrisku taldeei. Urriaren 31tik aurrera herritar orori. Aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan: 943 362 013.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noau.eu ||| www.noau.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noau.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noau.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal Herrerria!



Alazne Arruti Bengoetxea

Basoen hotsak

Duela ez asko, Jagoba Errekondok, Danimarkako ikerketa baten inguruan idatzi du bere blogean. Antza, iaz argitaraturiko ikerketa bat izan du abiapuntu, eta gutako askok jakin bai, baina ziurtasunez arrazoitu ezin duen horri erantzuna emateko aukera paregabea iruditu zait. Izan ere, 1985ean forma hartzen hasi zen ikerketa nazional horren bitartez, naturaz inguratuta hazten diren haurrak, heldu zoriotsuagoak bihurtzen direla arrazoitu nahi izan zuten besteak beste.

Izatez, berdegune edo ingurune naturalek osasun mentalekiko duten lotura, ez da aztergai berria. Duela urte batzuetatik hona, alor honen inguruko makina bat ondorio eman dira aditzera. Besteak beste, badira, berdegunez inguratutako ospitaleetako gaixoak, ingurune apal edo grisetan kokatzen direnak baino lehen osatzen direla aztertu duen lanketarik.

Inor gaixotzen hasi aurretik ordea, bada ia gu guztiok zaugarriagoak izan gareneko garai bat. Munduratu eta inguruak bildu gintuen momentu huraxe, hain zuzen. Beraz, arazoaren errora joanez gero, premiazkoa litzateke begirada haurtzaindegi edota jolasguneetara bideratzea. Izan



“Sounds of the forest deritzon proiektua ezagutu dut orain dela gutxi. Mundu osoko zuhaitzi edo basoen soinuak biltzea du helburu”.

ALAZNE ARRUTI

“Naturaz inguratuta hazten diren haurrak, heldu zoriotsuagoak bihurtzen direla dio 1985eko ikerketa batek”

ere, 900.000 pertsonen kasuak barnebiltzen dituen aipaturiko ikerketa horrexek, berdegune maila txikienekin hazten diren haurren artean, arrisku psikiatrikoa %55 areagotzen dela erakutsi zuen.

Zorionez, gure lurralde txiki honetan, baditugu hezitzaile, guraso eta irakasle arduratsu ugari. Bai eta Zubietako Haur Eskolaren jolas eremuaren antzera, Euskal Herriko txoko ugari jasangarritasunez berberaitzen dabilzan Kimubat gisako proiektu berezirik ere. Halakoei esker, noizbait, tximinoen gisan eskura genuen helduleku eta gainazal guztietatik

zintzilikatzen gineneko eremuen iruditeria aldatzen hasi da. Kolore biziko, plastikozko material artifizialak desagertzen. Eta trukean, euriak bustitako lurraren usain gozoa gailentzen hasi da osterera. Egurraren testura irregular bezain etxekoa, zutitzen. Eta horrenbeste zaindu nahi genituzkeen txikiak, naturaltasunez eta naturaz esperimentatzen.

Dena den, eremu hauetatik kanpo egin beharreko lanketa ere, ez guke ahaztu behar. Parkeetan lekurik ez dugunok edota hurrengoei lekua utzi diegunok, beste espazio batzuetan eman behar izaten dugu eguneroko bizimodua. Eta naturarekiko harremana, ez da soilik espresuki igotzen ditugun mendi gailur, zeharkaturiko baso zabal, ibai fresko eta hondartza garbietan sortzen. Ongizate hau, ordenagailu aurrean gogortutako hankak

luzatuaz, hiriguneko belardi batean paseatzeak elikatu dezake. Edota, besterik gabe, etorbideetan landareak hormigoi edo asfaltoz ito ordez, behar eta merezi duten espazioa emate hutsaz. Beraz, hiri zein herriak osatzeko darabilgun arkitektura edo egitura moldeen garrantziaz jabetu eta hausnartu behar genuke, ezertan hasi aurretik.

Bien bitartean ordea, bada bidean zehar lagundu gaitzakeenik. Horien artean, *Sounds of the forest* deritzon proiektua ezagutu dut orain dela gutxi. Mundu osoko zuhaitzi edo basoen soinuak biltzea du helburu, bertako doinu inguratzaile eta testurak batuaz, soinu-mapa bizi eta zabala osatzeko aburuz. Soinuok, kode irekiko liburutegi bat osatzen dutenez, edonork entzun eta sortu ditzake kokapen bakoitzari erantsitako audioak. Guztira, 50 herrialdeetatik gorako 550 bat pertsona jardun dira minutu eskaseko audioen bilketan. Eta etxe inguruetako espazio natural eta bizidunen hotsok, artista jakin batzuen sormen iturri bilakatuko dira, hurrengo urteko Timber Festival 2021, Erresuma Batuetako meatze industriak soildutako lurretan berreskuratzea lortu den paraje ikusgarrian, naturarekiko harremana goraiatzeko duen jaialdian.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Pelaioeneko parte hartze saioa, atzeratua

Hiru parte hartze prozesu abian ditu Usurbilgo Udalak; bat Zubietako etorkizuna marrazteko. Beste biak Kalezarko Pelaioenea barnetik definitzeko. Bat Emakumeen Etxeari loturikoa, bestea kalezartarren auzo ekipamendua diseinatzeko. Azken honi begirako parte hartze saioa deitua zuen Udalak azaroaren 12rako. Covid-19ak eragindako zailtasunak tarteko ordea, abenduaren 3ra atzeratzea erabaki dute. Aste honetan, zubitarraren txanda.

“Guk Zubietan zer?”

Hirigintza eta etxebizitza

Azaroak 17: mahai ingurua.

Azaroak 19: lan saioa.

Saioen ordutegia eta lekua: 18:30-20:00, Zubietako frontoia. Aurrez izen eman helbide honetan:

hirigintza@usurbil.eus



Covid-19ak eragindako zailtasunak tarteko, Pelaioeneari lotutako saioa abenduaren 3ra atzeratzea erabaki dute.

“GUK ZUBIETAN ZER?”

Zubietako parte-hartze prozesuari dagokionez, aste honetarako iragarriak zeuden saioak mantendu egin dituzte

Pelaioenea

Atzeratua

Data berria: Abenduak 3, oste-

guna.

18:00-20:30 Kalezartarren auzo-ekipamenduari lotutako bigarren gogoeta saioa Haur Eskolan.

Gaia: “Auzotarren beharrak asetzeko espazioak”.

Izena ematea aurrez:

parekidetasuna1@usurbil.eus
943 377 110

Ostalarari eta merkatarientzako diru-laguntza

Covid-19aren eraginez Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritza guneetako langileek establezimenduetan egin behar izan dituzten inbertsioak diruz laguntzeko lerro berezi bat jarri du martxan Udalak.

Hala dio, urriaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen iragarkiak. Interesdunek eskabideak aurkezteko aukera izango dute azaroaren 20ra arte. Eskabideak telematikoki bideratzea aholkatzen du Usurbilgo Udalak: usurbil.eus atariko diru-laguntzen atalean edo 943 371 951 telefono zenbakian.

28.006 euroko laguntza

Laguntza honek Covid-19ari aurre egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko ekimen bat du oinarrian.

Ika-mika

Jendea eta bereziki gazteak seinalatzea doan? Estatu polizialik ez!

Azaroak 15, igandea, 17:00ak inguru zirela salaketa dei baten ondorioz hainbat Ertzain patruila azaldu dira Aitzaga Elkartera. Ertzainek atea indarrez ireki dute eta barrura sartu dira begiratzerak. Elkarte hutsik eta ilunpean aurkitu dute-logikak eskatzen duen bezala- ezin baita jarduerak gastronomikoki egin.

Ohartu dira beste ate bat da goela sarreran eta behean lokal batzuk daudela. Bertara jaitsi eta hamar gazte aurkitu dituzte bilera bat egiten. Hauei, salaketa jarri diete 6 pertsona baino gehiago egoteagatik bilduta, elkarte gastronomiko batean zeudela esanez.

Aitzaga Kultur Elkarre bat da eta elkarteaz gain behean

lokal ezberdinak ditu herriko eragile ezberdinak beraien jardun politikoa gauzatu dezaten. Tartean, Ezker Abertzaleko kide politikoa zein hala eskatzen duten herriko eragileak biltzen dira. Eragile horien artean, Azarrika Gazte Asanblada, Kafe Tertulia neska* gazte taldea zein Xauxar txosna batzordea daudelarik. Hamar gazte hauek Azarrika Gazte Asanbladako ordezkariak ziren eta Gazte Egunaren berrantolaketan zebiltzan egoera berrira egokitu asmoz. Bilera hori, jardun politikoa da, ez da aisialdiko ekintza bat. Horregatik, errekurritu egingo ditugu Ertzaintzak bertan ziren norbanako bakoitzari jarritako salaketak.

Bestalde, lotsagarria iru-

ditzen zaigu gazte batzuk elkartzen ikuste hutsagatik Ertzaintzari deitzea, kriminalizatuz bai gazteok, lekua bera seinalatuz eta txibato alproja bezala jokatu. Ardura kolektiboa dugu eta baita indibiduala ere garai zail hauetan, baina, onarkaitza da estatu polizial batean bilakatzea geure herria. Ezin dugu jendea seinalatzen ibili, zer gertatzen den jakin gabe. Gainera, kasu honetan gazteak estigmatizatuz eta seinalatuz. Modu arduratsuan bilduta zeudenean. Horregatik, gazteei eragindako kalteei erantzunez, jakin dezala salatzaileak salagarria iruditzen zaigula bere jarrera.

Hau dena esanda, egoera honen aurrean, irakurketa honen

sinatzaileak osasun neurrien garrantziaz kontziente garelako eta gure praktika politikoaren erdigunean kokatzen ditugula adierazi nahi dugu. Ez dugu jazarpen polizialak ez “txibatoek” gure jarduna oztokatzea onartuko eta aurrean izango gaituzue. Herriarekiko dugun konpromisoan berresten gara eta horretan lanean jarraituko dugu.

Soilik herriak salba dezake herria!

Sinatzaileak: Aitzaga Elkarrea, Sortu Usurbil, Ernai Usurbil, Kafe Tertulia neska* gazteen taldea, Azarrika Gazte Asanblada, Xauxar Txosna Batzordea.

Energiaren aholkularitza bulegoa, abendutik aurrera

Usurbilgo Udalak eskainiko duen zerbitzu berria Artzabalen duen lokalean kokatuko da. “Energiaren inguruan hezkuntza lana egingo du, energiaren aurrezpen eta eraginkortasunaren garrantzia azpimarratuz, baita energia berriztagarrien inguruko zalantza eta aholkularitza eskainiz eta pobrezia energetiko egoeran egon daitezkeenei lagunduz ere”.

Horrekin batera, “udalaren energia kudeaketa hobetzea” izango du beste lanildoetako bat, beti ere “udaleko hirigintza eta zerbitzuetako saillekin harremanetan”. Eremu honetako hainbat lanketa ere bideratuko ditu bulego honetako udal teknikari berriak: “udal-argiteriaren inbertsio plana diseinatu, udal-energia inbentarioa osatu eta jarraipen prozedura zehaztu, udal-erakinen auditoretza energetikoak gauzatu eta inbertsio plana proposatu, energia berriztagarrien jarraipena egin eta sorkuntza aukeren bideragarritasuna egin...”

30 urtetik beherako teknikariaren hautaketa

Zortzi hilabeterako kontratazioa egitea aurreikusten du Udalak, baina “zerbitzuaren balorazioa ona bada”, jarraikortasuna emateko prest da. “Udal-energia inbentarioa



Energia berriztagarrien inguruko aholkularitza eskaintzeko edota pobrezia energetiko egoeran egon daitezkeenei laguntzeko sortu dute zerbitzua. Bestetik, energia teknikari posturako eskaintza jada argitaratu du Lanbidek.

LAN-ILDOAK

Udalaren energia kudeaketa hobetzea izango da bulegoaren lanildoetako bat

osatu eta jarraipen prozedura zehaztu, udal-erakinen auditoretza energetikoak gauzatu eta inbertsio plana proposatu, energia berriztagarrien jarraipena egin eta sorkuntza aukeren bideragarritasuna egin...” lanok burutu beharko ditu.

Izen-ematea, Lanbiden

Teknikari lanetarako 30 urtetik beherako gazteak kontratatuko du Udalak hasiera batean zortzi hilabeterako eta lanaldi osorako, Covid-19ak eragindako osasun krisiak dakarren ekonomia krisiak “gazteen lan-egoeran sor ditzakeen

arazoak kontuan izanda, eta udal-gobernuak gazteen enplegua bultzatzeko duen konpromisoari eutsita”. Abendutik uztaila arte luzatuko da kontratazioa. Hautaketa prozesua Lanbidetik bideratuko du Udalak, lanbide.eus atarian eman beharko da izena. Deialdi honetan parte hartzeko, 30 urte baino gutxiago izateaz gain, baldintza hauek bete beharko dituzte interesdunek:

- Enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea Lanbiden.
- Ingeniari titulua edo gradua izatea.
- Hirugarren hizkuntza eskakizuna eta EGA izatea.
- Kontratua abiatu aurreko egunean, Gazteen Bermerako Sistemari inskribatua egotea.

Informazio gehiago:

943 371 951 /usurbil.eus

‘Andatza: errotarriak, mugarriak eta aztarna geologikoak’ jardunaldiak

Aurkikuntza ugari izan dira Andatzen azken urteetan. “Batetik, errotarrien eta mugarrien azterlana amaitu berri dute Joseba Peñak, Javi Castrok eta Asier Agirresarobek. Bestetik, hainbat dira Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako indusketak, eta aurkikuntza berriak egin dituzte, haiek ere, azken urtean”, diote udal iturriek. Jardunaldiak aste honetan hasiko dira:

■ Azaroak 19: Txangosta eta Irigain. Sutegiko auditoriumean, 18:30ean.

Txori bat agertu da Ugartondon

Ondoko argazkia helarazi digu herritar batek. Txori koloretsu batena da. Azaroaren 13an aurkitu zuen Ugartondo inguruan. Zuhaitz batean. Bere hankatxoari erreparatzen badiotzue, eraztuna jarria du. “Etxeren batetik alde eginda edo?”, zioen argazkia bidali digun bizilagunak.



Azaroaren 13an aurkitu zuten argazkiko hegaztia.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Olatz Lasagabasterrek ez du espetxera itzuli beharrik izango

Argitu da Olatz Lasagabasterren egoera. Gogoan izan, 3. gradua aplikatu eta duela bi aste Aranjuezko espetxetik irten ahal izan ziren Olatz eta Patxi Uranga asteburuko baimenarekin. Usurbilen igaro ahal izan zituzten lehen hiru egunak; eta gainera, ez zuten gero Aranjuezera itzuli beharrik izan, Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Orokorrak bi herrikideak Martutenera kartzelaz aldatzea erabaki zuelako.

Azaroaren 9an Usurbilen Nahi Ditugu eta Sare taldeek berri eman zuten, Olatzek eta Patxi Urangaren espetxean aurkeztu zuten euren burua. Patxiri dagokionean, astean lau gau, astelehenetik ostegunera Martuteneko kartzelaz igaro beharra agindu zioten. Olatzi hilaren 12ra arte luzatu zioten espetxetik kanpo egoteko baimena. Zergatia Usur-



Horren ordez, "pultsera jarriko omen diote datorren astean", berri eman dio NOAUA!ri Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

NEURRIAK

Patxi Urangak astelehenetik ostegunerako gauak Martuteneko kartzelaz igaro beharko ditu

bilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo Sare taldeek argitu zuten; duela bi aste aurreratu zuten moduan, Maddi haurtxoarekin Martutenen egoteko baldintza egoki falta. Iragan ostegunean, "erabaki finkoago bat hartu be-

harko dute bere egoeraz", iragarri zuten Sarek eta Usurbilen Nahi Ditugu taldeek.

Telefono bidezko kontrola

Eta erabaki zuten; argitu da Olatzen egoera. Lasagabasterrek ez du Martuteneko espetxera bueltatu beharrik izango. "Pultsera jarriko omen diote datorren astean", berri eman dio NOAUA!ri Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak. "Bitartean telefono bidezko kontrola" ezarriko diotela zehaztu dute.

284tik 261era murriztu da langabetu kopurua

284 langabetu irailean, 261 urrian. Langabetu kopuruak beherantz egin du Usurbilen iragan hilabetearen, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko azken datuen arabera.

Udaberriko konfinamendu garaitik gorantz egin zuen langabetu kopuruak uztailean arte, etenik gabe. Martxoan 245 langabetu zituen udalerrri honek, apirilean 276, maiatzean 290, ekainean 296 eta uztailean 299. Ordutik beherantzko bideari eutsi dio; 297 abuztuaren, 284raino jaitsi zen irailean eta 261eraino urrian.

Bai emakumezkoetan zein gizonezkoetan, ia adin-tarte guztietan beherantz egin du urrian langabetu kopuruak Usurbilen. 261 langabetu zenbatu ditu Es-

tatuko Enplegu Zerbitzuak udalerrri honetan, iragan hilabetearen, irailean baino 23 gutxiago.

Emakumezkoen kasuan, 156tik 142ra murriztu da lanik gabekoen kopurua, 14 langabetu gutxiago. Gizonezkoen kasuan 128tik 119ra, 9 langabetu gutxiago. Sektoreka, nekazaritzan hilabete lehenagoko kopuru bera erregistratu da. Iraileko datuekin alderatuta, beherakada gainerako sektoreetan; industrian 45etik 39ra, eraikuntzan 20tik 18ra, zerbitzuetan 190etik 177ra eta aurreko lanik gabe zeudenen artean, 23 langabetutik 21era.

Usurbilen bezala, Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere beherantz egin du langabeziak. Gipuzkoaren kasuan, 2.516 lan-

gabetu gutxiago urrian, guztira 36.761. Irailean 39.277 izan ziren. Buruntzaldeari dagokionean, irailean 3.711 langabetu, urrian 178 gutxiago, guztira 3.533.

Murrizketa kontratazioan

Kontratazioak beherantz egin du urrian. 272 kontratu erregistratu ziren udalerrri honetan iragan hilabetearen, irailean baino (286) 14 gutxiago. Ohi den moduan, ia denak, 254, aldi baterako hitzartu ziren, 190 zerbitzuetan. Eta tarte txikiarekin bada ere, gizonezkoen kontratu gehiago tramitatu zitzaizkien (140) emakumezkoen baino (132).

Joera bera islatu da eskualdean eta Gipuzkoan.

Udal bilkurak herriko airearen kalitateaz eta kontrolaz

Gaion bueltan bi bilkura izan ziren iragan astean. Lehenengo, Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuorde Amaia Barredorekin. Azken hilabeteotan hainbat herritarrek helarazitako sakalaketaz jardun zuten. "Berriki Jaurlaritzak ingurumen baimen bateratu berria ezarritako emisio mugen eta horien kontrola hobetzeko neurrien inguruan ere hitz egin dute, elkarlana eta dagokien erantzukizunari heldzea eskatzeko. Jaurlaritzako ordezkariak, euren aldetik, hitz egindako gaien inguruan erantzuteko konpromisoa hartu dute", berri eman dute Udaletik.

Horrez gain, "aire kalitatearen jarraipenaren haritik, iaz hasi zen udala Kataluniako UPC unibertsitatearekin elkarlanean". Hain zuzen ere, udalerriko aire kalitatearen modelizazio lanak egiteko beharrezko duen informazioa lehenbailehen igortzeko ere eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Herriko emisio-foku guztiak aintzat hartuta, modu bateratuan Usurbilgo aire kalitatean zein eragin duten ikustea ahalbidetuko du modelizazioak. "Hain justu, herriko aktibitate potentzialki kutsakorrenen azken urteetako emisioen neurketen datuak eskatu dizkiote Jaurlaritzari, modelizazioa egiteko ezinbestekoak baitira".

Bilera Ucinekin

Herritarren salaketak ere hizpide izan zituen udal gobernu taldeak Ucin enpresarekin eginiko bileran. "Egindako obren inguruan eta aurrez udalak ezarritako baldintzez ere hitz egin zuten, aurrera begirako pausoak zehazteaz gain", Udalaren esanetan.

Milaka langileren egoera gaiztotu da pandemiaren ondorioz

Lehen munduan koronabirusak eragin duen kaltea oso handia izaten ari da, eta datuak ageriko sentsazio hori indartzera datoz. Langa-beziak gora egin du eta ERTEan murgildutako langileen kopurua oso deigarria da. Eskualdean ia zortzi mila lagun daude edo egon dira aldi baterako erregulazio espeditentean.

Eskualdeak gabezia batzuk baditu, eta nagusiki bi dira: Lehen, enpresen tamaina oso txikia dela. Batzuetan, 10 langile azpikoak dira enpresa gehienak. Eta, bigarrena, etorkizunari aurrea hartzeko duten zailtasuna. Digitalizaziorik ez da apenas eman. Eta bi aldagai horiez gain, eskualdeko enpresetan ez dago berezko produktu propiorik eta kanpoko enpresa handien baitan daude. Horrek dependentsia egoera handia eragiten die.

Udaberrian pandemia hasi zenetik, eskualdeko ekonomiak jaso duen kolpea handia izan da. Eta horrek eragin zuzena izan du langilegoarengan.

Langabezia

Azken bost urteetako daturik txarrenea eskaintzen du, eta



Pandemia hasi zenetik, Beterrri-Buruntza eskualdeko ekonomiak jaso duen kolpea handia izan da. Eta horrek eragin zuzena izan du langilegoarengan.

ESKUALDE OSOAN

“ERTE-ak delakoak amaituz gero, langabezia 3 edo 4 puntu igo daiteke”

iazko datuekin alderatuta 809 afiliatu gutxiago daude Gizarte Segurantzaren alta emanda. Urte batetik bestera langabezia 2,23 puntu igo da. Une honetan eskualdean langabezia %10,2an aurkitzen da. Datuak aletzen hasita, zerbitzuetan 525 langabetu gehiago dago, eta industrian 104 gehiago.

ERTEak

Aldi baterako erregulazio espeditentean murgildu diren

langileen kopurua ikusita, oso ondorio kezagarriak atera daitezke. Kopurua oso handia da, ia 8.000 lagun egon dira egoera horretan. Enpresa txikiak izanik, menpeko industria izanik eta zerbitzuetan ostalaritzak eta merkataritzak pisu handia izanik, hobeto ulertzen da datu handi hori. Izan ere, pandemia ondoen saihestu duten sektoreak energiarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologikoekin, telekomunikazioekin edo informatikarekin loturikoak dira. Eta horien pisua gure eskualdeko ekonomian oso oso apala da. Ekonomia gurean enpresa txikiak eta gertuko zerbitzua eskaintzen duten ekimenak dira. Pande-

mian gehien sufritzen duten sektoreak, alegia.

ERTE-en bilakaera hori oso tentuz jarraitu beharrekoa da, behin behineko neurriak direlako. Estatu mailan hartutako neurria da, gizartea babesteko hartu dena, eta pandemia egoera luzatzen eta zailtzen bada ikusi beharko da estatuak zenbaterainoko aukera izango duen ERTE kopuru handi horri eusteko.

Txarreanean jarrita, ekonomia geldialdian sartuz gero, ERTE egoeran dauden langile asko langabeziara joan daitezke. Hori gertatuko balitz, aurrikuspen batzuren arabera, langabezia-tasa 3 edo 4 puntu igoko litzateke. Hazkunde horrek larritasun egoera handitu besterik ez du egingo. Zer gerta ere, etorkizunak bide eraldatzailea marraztu behar du. Kontua ez baita lehengora itzultzea. Eskualdeko enpresen sarea ikusita, enpresa horiek guztiak etorkizunera begira jarri behar dira. Berraktibazio planetan aditu direnek lehentasunak ezarri dituzte: merkaturatzeko egokitzapen planak, berrikuntza eta digitalizaziorako erramintak, iraunkortasunerako inbertsio neurriak, trantsizio energetikoa ahalbidetzeko laguntzak...

Langabezia

	Iraila'19	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
Langabetuak guztira	2.902	2.941	2.924	3.254	3.591	3.669	3.790	3.790	3.870	3.711
Langabezia %	7,97	8,08	8,04	8,94	9,87	10,08	10,42	10,42	10,64	10,2

Langabezia, sektoreka

	2019	2020										Aldea
	Iraila	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila		
Nekazaritza	59	72	69	69	74	70	79	82	77	69	(+)10	
Industria	411	395	399	441	480	492	514	528	526	515	(+)104	
Eraikuntza	175	181	187	192	214	212	223	237	239	229	(+)54	
Zerbitzuak	1.979	2.030	2.020	2.296	2.551	2.603	2.625	2.588	2.653	2.504	(+)525	

Zerbitzuak eta industria nagusi dira eskualdean

■ Eskualdean ostalaritzako 1.332 lagun egon ziren udaberri eta uda partean ERTEan.

■ Merkatarien kasuan egoera ez da asko aldatzen, baina badira ñabardurak. Izan ere oinarritzko elikagaiei loturiko merkatalguneentzat egoera ez da hain larria izan. Oso larria izan da, aldiz, pandemia garaian funtsezkotzat hartu ez ziren gainerako merkatarientzat. Martxotik hona 1.124 pertsona izan dira ERTE egoeran.

■ Industria arloan, udaberriaren %32ko jaitsiera eman zen ekoizpenean. Jaitsiera horrek eragin zuzena izan zuen langileengan. 1.832 lagunaldi baterako erregulazio egoeran murgildu ziren, ERTE modura ezagutzen den egoeran. Sektoreak, oro har, egiturazko ga-beziak ditu. Tamainaz txikiak dira -batz bestea, 10 langile azpikoa-, kanpo esportazioen menpe daude eta enpresa handiagoen hornitzaile nagusi dira.

Ezberdin egiten dituen aldagaiak

Eskualdeak baditu gainerako eskualdeekin alderatuta ezberdin egiten dituen aldagaiak. Sagardogintza, esaterako. Ostalaritzan eta turismoan eragina du, eta pandemian egoera aldarazteko saiakera itzela egin dute.

Bada beste bereizgarria eskualdean, hori kultur eta sormen industriari lotuta. Kultura eta aisialdiari lotutako enpresa asko dago, ge-

hien-gehienak Martin Ugalde Kultur Parkearen inguruan bilduta. Bereizgarri hori interesgarria izan daiteke egoera orekatu batean. Zoritzarrez, kultur industria oso lotuta dago jendaurreko ekitaldietara. Eta hori, bistan da, ia ezinezkoa da egitea. Enpresa txikiak dira, horietako asko autonomoak, eta sektore horrek nozitu du gehien pandemia garaia. Batz bestea, sektorean %50 eta %75 artean jaitsi da fakturazioa.

ERTEak | Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak udalerrika

	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Guztira
Andoain	693	374	8	196	67		40	1.378
Astigarraga	624	261	8	114	2	4	68	1.081
Hernani	1.685	373	41	100	3		859	3.061
Lasarte-Oria	763	179	82	1	77		3	1.105
Urnieta	209	296	53	1	73	38		670
Usurbil	326	262	75	9	18			690
GUZTIRA	4.300	1.745	267	421	240	42	970	7.985

ERTEak | Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak sektoreka

	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Guztira
Nekazaritza	2	0	0	0	0	0	0	2
Industria								1.898
Manufaktura-industria	884	471	145	154	136	42	0	1.832
Energia elektrikoa, gas, lurrun eta aire girotu hornidura	3	0	0	3	0	0	0	6
Ur-hornidura, Saneamendu-jarduerak, Hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	31	0	0	29	0	0	0	60
Eraikuntza	98	77	0	0	0	0	0	175
Zerbitzuak								5.910
Merkataritza	613	367	85	52	0	0	7	1.124
Garraioa eta biltegiatzea	325	237	0	0	1	0	0	563
Ostalaritza	1023	296	3	10	0	0	0	1.332
Kultur eta sormen industriak	235	125	53	0	0	0	0	413
Administrazio-jarduerak	245	125	68	3	0	0	0	441
Hezkuntza	53	20	3	0	3	0	0	79
Osasuna eta Gizarte Zerbitzuetakoak	984	2	0	0	0	0	851	1.837
Finantza- eta aseguru-jarduerak	3	0	0	0	0	0	0	3
Higiezin jarduerak	10	0	0	0	0	0	0	10
Bestelako zerbitzuak	101	7	0	0	0	0	0	108
GUZTIRA								7.985

Banaka nahiz taldean, baina gehiagorekin eta gehiagotan

Erosketak egiterakoan, lantokian, ikastetxean, etxean, dugun aisialdi tarte apurrean... Baina euskaraz. Eta euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan. Geure hizkuntzarekiko konpromiso argia eskatzen zaigu, ostiral honetan hasi eta abenduaren 4ra arte luzatuko den Euskaraldian. 2018ko edizioarekin alderatuta, indartuta dator aurtengoa.

Ez baita duela bi urtekoaren antzera, norbanakoen arteko ariketa soila izango. Ariguneak osatu dira erakunde, elkarte, talde edota denetariko eragileetan. Euskaraz lasai ederrean aritzeko guneak lirarete. 15 egunez, barne komunikaziorako darabilten hizkuntza-ohituretan, nahiz kanpora begira, izan bezeroak, erabiltzaileak, herritarrek... haiekiko hartuemanetan eragitera dator Euskaraldia. Entitate guztiok iraila amaierara arte zuten inskripzio epearen baitan, barne nahiz kanpo ariguneak identifikatzeko tartea, datorren hamabostaldiko ariketa egoki egin ahal izateko.

Entitateek hartutako konpromisoari, norbanakoena batuko zaio. 2018an bezala, bueltan izango ditugu asteotan Ahobizi eta Belarriprestak. Tarterik hartu ez edota gogoan izan ez baduzue, ostegunera arte (hilak 19) zabalik duzue oraindik, izen ematea bideratzeko epea. Kasu honetan, zeure burua jendaurrean identifikaraziko zaituen txapa eskuratu eta soinean jantzita izatea eskatzen da. Hartara, gutako bakoitzarekin hartuemanetan jarriko den edonork jakingo du, hasteko Euskaraldian parte hartzeko konpromisoa hartu dugula. Ahobizi edo Belarriprest garelara adieraziz gainera, zer modutan



2018ko Euskaraldian bezala, bueltan izango ditugu asteotan Ahobizi eta Belarriprestak.

EUSKARALDIA

“Ostiral honetan hasi eta abenduaren 4ra arte luzatuko da Euskaraldia. 2018ko edizioarekin alderatuta, indartuta dator aurtengoa”

eskuhartuko dugun jakinaraziko diegu gainerakoei.

Hortik aurrera, testu honen hasieran aipaturikoa; euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan ahotan hartzera. 15 egun ditugu, ostiral honetan hasi eta abenduaren 4ra arte. Baina gogoan izan, euskaraz bizitzeko urteak 365 egun ditu. Euskaraldiak ere horretan eragin nahi du; ariketa honek, gerora arrastoa uztea, geure eguneroko hizkuntza-ohiturak benetan aldarazi, euskaldundu eta ohitura hauei urte osoan eusteko erronka du.

2. Euskaraldia

■ Noiz: azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

Norbanakoek:

■ Belarriprest: “Lekua, gaia edo egoeraren arabera eraba-

kitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin. Agian, ez dut beti euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan”.

■ Ahobizi: “Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila den arren, elkarrizketa elebidunetan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean”.

Entitateek: Ariguneen bidez.

■ Izen ematea: entitateena itxita. Ahobizi eta Belarripresten-tzako izen ematea azaroaren 19ra arte zabalik, izenematea euskaraldia.eus atarian.

Ariguneen ezaugarriak:

■ Denetariko entitateek parte hartuko dute: erakundeek, herri eragileek, elkarteek, denetariko kirol edota kultur taldeek...

■ Ariguneak = entitateen baitan dauden euskaraz aritzeko

gune babestuak dira. Arigunea osatzen duten kide guztiak euskara ulertzeaz gain, euskaraz hitz egin nahi dutenekiko aldeotasuna adierazten dute.

■ Bi arigune mota sortuko dira: barne-ariguneak (entitateen barne funtzionamenduan euskararen erabilera babesteko sortutakoak) eta kanpo-ariguneak (herritarrekiko harrerarako edo kanpo harremanetarako sortuko direnak).

■ Entitateen ardura: ariguneak sustatu eta babesteko neurri praktikoak hartzea.

■ Ariguneek izena emateko, entitate bakoitzak “ariguneak non dituen identifikatu behar du eta kideekin adostasuna hitzartu”.

Informazio gehiagorako eta antolaketan parte hartzeko:

usurbil.euskaraldia.eus
usurbil@euskaraldia.eus

Txapak banatzeko azken egunak:

■ Azaroak 19, osteguna: 10:00-14:00, Potxoenea. 18:30-19:30, Sutegi ondoa.

■ Azaroak 20, ostirala: 10:00-14:00, NOAUA! Kultur Elkartea. 18:00-19:00, Sutegi ondoa.

Orbeldi Korrontzirekin arituko da larunbat honetan

Berezia izango da larunbateko emanaldia, denboraldi batean azkena, Covid-19aren hedapena murrizteko Eusko Jaurlaritzaren azken neurriek jarduna erabat eten baitie Orbeldi Dantza Taldekoei. NOAUA!ren Kulturaldirako lantzen ari ziren ikuskizunari debekuen gaintetik eutsi ahal izan diote ordea. Korrontzi folk musika taldekoekin batera igoko dira hilaren 21ean auditorioko oholtza gainera. Ez ezazue gal, herriko dantzariak aldi baterako azken aldiz ikusteko aukera.

NOAUA! Nondik sortu da Korrontzirekin elkarlanean aritzeko aukera hau?

Orbeldi Dantza Taldea: Korrontzik dantzen proiektua du. Joaten diren herri horretako dantza taldearekin harremanetan jartzen dira. Beraien musika eta koreografiaren bueltan ikuskizuna prestatu eta eskaintzen dute, herri horretako dantza taldearekin. Normalean hiruzpalu hilabete tartean egiten den prestaketa guk hilabete landu ditugu haiek irakatsitako koreografiak. Eta baldintza berezietan. Eusko Jaurlaritzaren neurri murriztaile berriekin ahots eta dantza talde ez profesionalak entseatu eta edozein emanaldi eskaintzeko debekua etorri zen due la aste batzuk. Guk jada lana eginda, eskaintzeko aukerarik ez genuela izango ikusita, pena handiz.

Emanaldia ia bertan behera ge-



Korrontzi folk musika taldekoekin batera igoko dira hilaren 21ean Sutegiko oholtza gainera.

ORBELDI DANTZA TALDEA

“Mimo eta gogo askorekin ari gara prestatzen eta ahal dugun guztia emango dugu”

ratzeaz egon zen.

Bai. Bai NOAUA!ri eta Udalarri eskerrak eman, emanaldia babestu dutelako. Gu profesionalak izan ez arren, ekitaldi profesionaltzat hartu gaituzte eta horrek entseatzeko jarraitu eta emanaldia eskaintzea ahalbidetu du. Badakigu gainera, puxka batean azkena izango dela, ezingo dugula beste emanaldirik egin.

Orbeldiren jarduna emanaldi honekin etengo da ezta?

Printzipioz bai.

Ezohiko ikasturtea hasi eta berehala etenaldia.

Haurren ikastaroetan bi asteetara. Astebetek izan genituen entseguak eta hurrengo astean jada ezin zen entseatu. Halere

umeei harrera egin eta nola baiteko gero arte bat prestatu genien. Helduek hilabetez entseatu ahal izan dute. Neurri murriztaile berriekin helduen ikastaroak ere bertan behera geratu dira.

Jarduna eteteko agindua jaso zenutenean zertan zineten?

Ohiko jarduna berreskuratu nahian. Kontuan izan, aurrez aurre entseatu gabe ginen martxotik. Urrian aire librean hasi ginen entseatzeko Agerialdeko frontoietan. Eta gure ohiko errutinara bueltatzen, espazio guztiak egokitu behar izan ditugu. Urte ilusionagarria behar zuen, egoitza berrian, Zumarteko ganbaran. Baina aforoak murrizten zihoazen, beste espazio bat bilatu behar izan genuen. Martxa hartuta gurenean etorri da debekua.

Korrontzi eta Orbeldiren arteko elkarlana nola plazaratuko duzue Sutegin?

Korrontziren emanaldi bat izango da. Emanaldi horretan

zenbait piezetan guk dantzatu egingo dugu. Ostegunean dugu entsegu saio orokorra. Larunbaterako dena prest egotea espero dugu, debeku berririk ez bada tartean.

Denboraldi batean azkeneko aldiz ikusiko dugu Orbeldi dantzan. Nola eragingo dio honek aurrera begirako zuen dinamikari?

Ez dugu horri buruzko hausnarketarik egin. Egoera honi nola eutsi pentsatzen aritu gara, aurrera begira baino. Orain derrigorrezko geldialdi bat egin beharko dugu eta gero ikusiko dugu. Guk azkenean beti gustuko duguna da gauzak talde osoarekin egitea. Zerbait egin behar badugu ahal duten pertsona gehienek parte hartzea. Gure ikuskera aldatu beharko dugu, denbora luze batean ezingo baitugu parte hartzaile askoko ekimenak antolatu eta horrek guri sorkuntza prozesu desberdin bat eskatuko digu. Bestalde, orain arte umeei dantza udako jailetan ikusten dute. Iaztik dantzak plazan ikusi gabe gaudeenez, asko izen ematera ez dira animatu.

Larunbateko emanaldia beraz, inoiz baino bereziagoa izango da.

Mimo eta gogo askorekin ari gara prestatzen eta ahal dugun guztia emango dugu. Jendeari gustatzea espero dugu. Politia izango da. Tabernak itxita askoz gauza gehiago ez dago egiterik, animatu beraz!

NOAUA! Kulturaldia, azken txanpan

Azaroak 20, ostirala

■ 19:00 Anari + Malen eta Maddi kontzertuan Sutegin.

■ Sarrerak: 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. NOAUA!ko bazkideek sarrera bat 8 eurotan au-

rreraz eskuragarri NOAUA!n.

Azaroak 21, larunbata

■ 17:30/19:30 Korrontzi Dantzan Orbeldi Dantza Taldearekin. Bi emanaldi Sutegin.

■ Sarrerak: 10 eurotan aurrez

Lizardin eta NOAUA! K.E.-ren egoitzan. 8 eurotan aurrez NOAUA! K.E.-ko bazkideek NOAUA!ren egoitzan.

Azaroak 22, igandea

18:00 “Fadoak entzuten zituen

gizona” antzezlanaren Sutegin. Sarrerak: 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. Aurrez 8 eurotan eskuragarri NOAUA!ko bazkideentzat, NOAUA!ren egoitzan. Antolatzailea: NOAUA! K.E.

“Pixkanaka ohitu egin gara egoerara, eta hobetu beharreko arloak fintzen ari gara apurka-apurka”

Ikasturtea aurrera doa, eta badirudi eskoletan ere normaltasun berri horren marka lantzen ari direla pixkanaka. Iraileko nahasmenaren ondotik, haurrak eskoletan martxa berria hartuta daude, eta neurri batzuk jarraituta betiko ikasturtea marratzen ari dira. Aginagako Eskola Txikiko egoera ezagutu nahi izan du NOAUA!k eta horretarako Leire Salaberria zuzendariarekin izan da.

NOAUA! Ikasturte hasiera atipikoa izan da aurtengoa. Nola gogoratzen dituzu lehen egunak?

Leire Salaberria: Guk ekainean diseinatu genuen ikasturte hasiera nola izan zitekeen. Talde egonkorak osatzeko eskatu ziguten Hezkuntzatik. Kontingentzia plana ere eginda geneukan, eta zentzu horretan ia dena lotuta utzi genuen ekaina eta uztaila bitarte. Gertatzen dena da, beti zalantza puntu bat geratzen zaigula behin ikas-



Aginagako Eskola Txikiko langileak, Euskaraldirako ateratako argazkian. Leire Salaberria zuzendariarekin pandemia garaiaz aritu gara hizketan.

LEIRE SALABERRIA

“Gure eskolak bi sarrera ditu, eta beraz, talde bakoitza ate batetik sartu eta ateratzen da”

leak geletara itzulita benetan nola izango ote den egoera. Ideia bat idaztea kontu bat da,

baina gero praktikan ikasleekin hastean, orduan ikusten ditugu benetako beharrak. Ikasturtea hasi aurretik, gurasoekin bilera egin genuen neurriei buruzko informazioa emateko eta gurasoak ados agertu ziren. Orduan, hasiera eman genion ikasturteari, betiere, alerta egoeran. Bi taldeetan hasi ginen lanean, Haur Hezkuntzakoak 21 haur dira, eta Lehen Hezkuntzakoak 25 bat dira. Gure metodologia ez

genuen gehiegi nahastu nahi, lau talde gehiegi iruditzen zitzaizkigun, eta haurren arteko harremana ere mozteko arriskuan egon zitekeen. Azkenean, modu horretara hasi ginen, elkar nahastu gabe. Pixkanaka ohitu egin gara egoerara, eta hobetu beharreko arlo horiek fintzen ari gara apurka-apurka.

Zein neurri ari zarete hartzen?

Gure eskolak bi sarrera ditu, eta beraz, talde bakoitza ate batetik sartu eta ateratzen da. Korridoreetan bi taldeak ez gurutzatzen saiatzen gara. Horretarako, txikienak lehentxeago ateratzen dira zaharragoak baino. Beheko solairuan egoten dira txikienak, eta zaharrenak goikoan, beraz, orokorrean zaila da gurutzaketak gertatzea. Jolasgaria ere banatuta ibiltzen dira; zaharrenak frontoian, eta gazteenak parkean. Eguraldi txarra denean, berriz, frontoia bi zatitan banatzen dugu eta alde banatan jartzen ditugu taldeak. Erdi eta erdi.

“Haur Hezkuntzakoek gela birtuala sortuta daukate”

NOAUA! Etxean geratu beharra geroz eta ohikoagoa da gaixoren batekin kontaktuan egonez gero. Zu zeu ere etxean harrapatu zaitugu. Zutaz gain kasu gehiago izan dituzue?

Leire Salaberria: Praktiketako ikasleak dauzkagu eskolan, eta duela hiru bat aste horietako batek positibo eman zuen, eta protokoloa martxan jarri genuen. Osakidetza jarritako erreferente bat daukagu eskola bakoitzak, eta erizain bat dagokigu egoera hauetan nola jokatu azaltzen

diguna. Hari deitu genion eta kasua azaldu genion. Jarraitu beharreko pautak batzuk zehaztu zitzaizkigun, eta azkenean Haur Hezkuntzako gela osoa konfinatu behar izan genuen. Musikorik gabe ibiltzen dira ikasle horiek, eta erabaki hori hartu behar izan genuen. Hamar egunez konfinatuta egon ginen HHko ikasle eta irakasle guztiak. Azkenean inork ez zuen positibo eman, eta hamar egun pasata berriz ere lanera itzuli ginen.

Pandemiaren bigarren agerto-

ki honi nola ari zarete erantzuten, klase oso bat konfinatuta egon eta gero?

Batzuk eskolan zeuden bitartean beste batzuk etxetik aritu ginen hamar egunez. Gisa honetako kasuak gehiago ere gerta daitezke, baina prestatuta gaude egoera hauei erantzuteko. Haur Hezkuntzakoek gela birtuala sortuta daukate, eta bertan zintzilikatuta daukate eskolan egindako lan guztiak: abestiak, ipuinak... Horren ume txikiekin zaila da bideo-deiak egitea, segituan aspertzen dira eta

kontzentrazioa galtzen dute. Modu ona da etxean euskara erabiltzen ez duten haurren kasuan, etxe horietara ere euskara iristeko.

Lehen Hezkuntzarako berriz, txosten batzuk prest dauzkagu konfinamendu egoera gertatzen bada fotokopiak atera eta etxera eraman ditzaten. Horiekien bideo-deiak ere egin ditzakegu, ongi dakite plataforma horiek nola erabili konfinamendu garaitik. Classroom eta gisa horretako plataformak prest ditugu.

“Neurria hartu genion udaberriko egoerari”

NOAUA! Martxotik izan da eskola jarduna nahiko berezia. Itxialdiak nola harrapatu zintuzten, eta nola jarraitu zenituzten klaseak etxetik?

Leire Salaberria: Erabat egoera surrealista izan zen. Zurrumurruru ugari zebiltzan kalean, eta telebistan ere behin eta berriz konfinamendu posible baten agertokia marrazten zuten. Behin iritsi zenean, korrika eta presaka materiala prestatu genuen, ikasleei hasiera batean zerbait eman ahal izateko, eta hortik aurrera pixkanaka plataformak sortu genituen aurrera jarraitu ahal izateko. Autodidaktak izan ginen. Tutorialak ikusi eta plataformen funtzionamendua ulertu, elkarri erakutsi... erabateko biziraupen lana izan zen. Haur Hezkuntzako haurrekin bideo-deiak egiten saiatzen



“Bigarren konfinamendu bat etorriko balitz, uste dut neurria hartuko geniokeela. Baina ez dut uste horrelakorik gertatuko denik”.

LEIRE SALABERRIA

“Irakasleak %100ean inplikatu ziren eta aurrera atera ginen udaberrian”

ginen asten behin edo bitan, baina ez da batere funtziona-

la. Batzuek klaseak jarraitzen zituzten, baina gehienek ez. Ez zen batere erraza horren haur txikiekin. Irakasleentzat ere eromena izan zen. Goizean goiz esnatu eta lanean hasi bai, baina ez zenuen sekula amaitzen. Ni irakasle izateaz gain, guraso ere banaiz, eta nire se-

me-alabek ere eskolako lanekin laguntza behar zuten. Gure lana egin bai, baina etxean ere lagundu beharra zegoen.

Bigarren itxialdi baten mamua dabil azken asteetan. Halakorik gertatuko balitz zerbait berezia prestatuta daukatzue sorpresaz ez harrapatzeko?

Ez dut uste halakorik gertatuko denik edo ez dut espero behintzat. Lehenengo hartan susto ederra izan zen, baina irakasleak %100ean inplikatu ziren eta aurrera atera genuen lana. Bigarren bat izango balitz nik uste neurria hartuko geniokeela. Plataformak jada ezagutzen ditugu, eta funtzionamendua ere jada hartuta daukagu. Badaezpadako bilerak ere egiten ari gara egoera hori emango balitz nola erantzun jakiteko.

COVID19 BIRUSAREKIN GAIKOTUTAKO KASU POSITIBOREN BAT DUTEN ETXEBIZITZAK

Erabil itzazu 3 poltsa



Positibo eman duen pertsonaren erabilera bakarreko materialak, bere zaintzailearenak, eta pazientearen gainerako hondakinak:

SARTU POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (1go poltsa).
Pazientearen logelaren barruan egin.



SARTU 1GO POLTSA, ZAINTZAILEAREN ERABILERA BAKARREKO MATERIALAREKIN, (ESKULARRUAK, MASKARAK...) BESTE POLTSA BATEAN, ETA ONDO ITXI (2. poltsa).
Pazientearen logelaren barruan, ate ondoan.



SARTU 2. POLTSA ERREFUSAREN KUBOAN (3. poltsa), ETA ONDO ITXI.
DEITU ATEZ ATEKO BULEGORA (900 776 776):
GU JOANGO GARA HONDAKINAK JASOTZERA.



ARRETAZ GARBITU ESKUAK, URA ETA XABOIA ERABILITA,
40-60 SEGUNDOZ.

PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik

GAINERAKO HERRITARREK (Eskularruak, maskarak, mukizapiak)

Kalean: errefusaren edukiontzietan
Etxean: errefusaren kuboan




GAINERAKOAN, JARRAITU OHI BEZALA SAILKA BIRZIKLATZEN



Pandemiak ez ditu Gure Pakearen ohiturak eten

Gauzak asko aldatu dira denentzat. Baita Gure Pakea elkartearentzat ere. 80 urte betetzen dituztenei omenaldi modukoa egiten diete urtero-urtero. Aurten, pandemiak eraginda, bertan behera utzi behar izan dute ospakizuna. Hortaz, plakak eta opariak banan bana banatu behar izan dituzte. Elkartzeko debekuaren aurrean, argazkien bidez batu ditugu saritutako denak.



Gumersindo Cumbres Paquito.



Adoracion Arcaya Sarrasqueta.



Emiliano Labrador Roscales.



Antonio Garcia Gamiz.



Dolores Michelena Etxeberria.



Dionisia Beraeche Aramburu.



Jose Antonio Etxabe Mancisidor.



Juan Jose Sarasola Galarraga.



Josefa Martinez Lazcanori dagokion saria.



Jose Miguel Berdegue Prietori dagokion saria.



Juan Rueda Chilleron.



Timoteo Sanz Sebastian.



Rosa Galvez Ruiz.



Rosario Vega Guillen.



Maria Aranzazu Odriozola Urroz.



Maria Martin Rodriguez.



Odulio Martinez Martinez.



Lourdes Pagola Aizpurua.



Maria Paz Casado Fraile.



Maria Angeles Arribillaga Arregui.



Maria Angeles Ibarгойen Alzaga.



Gure Pakea elkarteak Rosario Barreda Ortega omendu du aurren, azken 40 urteotan zuzendaritza taldean egindako lanarengatik.

Maria Jesus Etxeberria: “Emakumearen edertasuna islatu nahi nuen margolanetan”

Argazkilaritzarako duen zaletasunari eutsi arren, konfinamenduan ezin kalera irten, ezin irudirik atera eta etxealdi horretan, lehendik ere lantzen ari zen margolanak sortzeari ekin zion Maria Jesus Etxeberriak. Bere orain arteko ibilbideko lanen emaitza duzue asteotan ikusgai Sutegin.

Oraingoan ez zatoz argazkiekin, margolanekin baizik. Zer ikusi ahalko dugu Sutegin?

Maria Jesus Etxeberria: Konfinamendu garaian, akuarela edo errotulagailuak baliatuta sortutako margolanak dira hogeitik hamar bat. Aginagako ikastarora joaten nintzenez egindakoak gainekoak.

Zerk inspiratu zintuen konfinamendu garaian?

Emakumearen edertasuna, bere elegantzia islatu nahi nuen margolanetan. Sei edo zazpi egin ditut.

Argazkilaritzan bezala, pinturan ere bazabiltza aspaldidantik.

Aginagara joaten nintzen ikastaroak egitera duela lau zapabost urte. Han ikasi nuen akuarela egiten. Eta gero nire kabuz etxean hasi nintzen, konfinamendu garaian.

Konfinamenduak sormenerako eman dizu.

Denbora nuen. Argazkiak ateratzeko kalera irteterik ez zegoenez, etxean egon behar zenez, margotzen aritu nintzen.

Konfinamendu ostean argazkilaritzara itzuli al zara?

Bai. Egunero bospasei argazki ateratzen ditut. Oso gustukoa dut, pintura ere bai. Biak. Ez dut uzten pintura egiteagatik argazkilaritza.



“Aginagara joaten nintzen ikastaroak egitera duela lau zapabost urte. Han ikasi nuen akuarela egiten”, azaldu digu Maria Jesus Etxeberriak. “Eta gero nire kabuz etxean hasi nintzen, konfinamendu garaian”.

MARIA JESUS ETXEBERRIA

Sutegiko margolan batzuk akuarelaz edo errotulagailuz sortuta daude

Argazkiak erakusgai jarri izan dituzu lehen, orain margolanak. Zer moduzkoa da zure sormen lanak jendearekin partekatzea?

Jende zoragarria dago Usurbilen, asko animatzen nau, bai herritarrek baita lagunek

ere. Beti halako lanak egiten segitzeko esaten didate.

Motibagarria ezta?

Animu mezu horiek segitzeko gogoia ematen didatenez are gogo handiagoz egiten ditut halako gauzak.

Egongo da herrian, zeure antzera sormen lanak egin baina etxerako gordetzen dituenik.

Hona etorri zen bat eta esaten nion ia berak zergatik ez zituen ikusgai jartzen. Animatzeko

esaten nion, areto hau horretarako ere badagoela. Leku oso ona eta ederra da Sutegi. Herritarrok egiten ditugun gauzak herritarrei erakusteko baliatu beharko genukeela deritzot.

Bestela halako sortze lanak ezagutu gabe geratuko gara.

Hor geratzen dira gordeta. Oso aberasgarria da beste norbaitek ikusgai jartzen dituenen norberak ere egin dezakeela ikustea. Halakoak egitera elkar animatu gaitzake hartara.

“Josten ere aritzen naiz”

NOAUA! Argazkilaritza, margoak... sorkuntzan urrats gehiago emateko asmotan?

Maria Jesus Etxeberria: Denez, egiten dut, josten ere aritzen naiz. “Gantxilloa” ere egiten dut, diru-zorroak ere egiten ditut. Saldu izan

ditut. Denbora izan eta ondo nagoen bitartean gauzak egiteko aprobetxatu nahi nuke.

Margolanak eskuragarri dituen erakusketa

Epea: azaroaren 26ra arte egongo da zabalik.

Orduetgia: 16:30-18:30 (astelehenetik ostiralera).

Tokia: Sutegiko erakustaretoa.

Oharra: margolanak salgai ditu. Erakusketan bertan erreserba ditzakezue.

Udazkena, Maria Jesus Etxeberriaren begietan

Goizero kamerarekin ateratzen da kalera. Udazkenari lotutako argazki eder asko batu ditu eta horietako batzuk NOAUara ekarri ditu.

Erakusketa Sutegin

Maria Jesus Etxeberriaren sormena haratago doa, ordea. Margolari gisa egindako hainbat koadro Sutegin ipini ditu ikusgai. Azaroaren 26ra arte egongo da erakusketa zabalik: arratsaldez, 16:30etik 18:30ak bitartean.



Maria Jesus Etxeberriaren margolanak azaroaren 26ra arte daude Sutegin ikusgai. Argazkiok aldiz, udazken honetan ateratakoak dira.

INDARKERIA MATXISTAREN

AURREAN
EZ
ZAITEZ
IKUSLE
HUTS
BAT
IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

“Beherakada nabarituko dugula iruditzen zait”

NOAUA! Zaharren Egoitzan ile-apaindegia izanda, nola harri-patu zintuen martxoko itxialdiak? Ane ile-apaindegia: Hasieran kolpe gogorra izan zen, batez ere moralki. Ekonomikoki nola aurre egin, hori izan zen lehen kezka, baina diru-laguntzak jaso genituen, langileak ERTE-ra joanda, eta tira, horrenbestean pasatu genuen.

Jada erritmo normalera itzuli zaretela esango zenuke?

Nahikoa normaldu dela bai esango nuke, baina ez erabat. Ez da berdina. Nik uste dut dena erabat normalizatu arte, eta pandemiaren kontua iragan bilakatu arte, ez garela erabateko normaltasunera itzuliko, eta gerora ere nire dudak dauzkat. Lehen noiznahi etortzen ziren bezeroak zerbait zuten bakoitzean: alaba etxera bazkaltzera datorrela, lagunekin bazkaria dutela,



“Azken aste hauetan jende gehiago etorri da ilea moztera, badaezpada”.

ANE ILE-APAINDEGIA

“Batzuei nik lagundu diet Gertuagoko bonu-erosketa egiten hemen bertan”

familiakoekin kanpoan afaria... Hori guztia iraganeko kontua da orain, neurri handi batean. Beste batzuek, astero etortzeko ohitura dutenek, berdin berdin etortzen

jarraitzen dute. Neurri handi batean eskertu ere egiten dut. Orain ez baita posible erritmo bera jarraitzea edukiera kontuagatik eta osasun neurriagatik. Ez litzateke posible.

Gertuago kanpainen parte hartzen ari zara. Bezeroak adinekoak izate horrek badu eraginik Internetetik erostean?

Ongi moldatzen dira?

Batzuei nik lagundu diet erosketa egiten hemen bertan, pena ematen zidalako horrelako aukera ez aprobetxatzea. Internet ez dute ezagutzen askok, eta mugikorrean Internetik ez daukate, orduan zaila da. Batzuei seme-alabek lagundu diete, hala ere. Orokorrean, hala ere ez da gehiegi iritsi beraiengana. Askorentzat lau euro aurrezteagatik ez du merezi horrelako esfortzuak.

Nola ikusten dituzu datozen hilabeteak?

Iruditzen zait eragin handia izango duela adinekoengan, gehiago beldurtuko direla. Azken aste hauetan jende gehiago etorri da ilea moztera, badaezpada berriz ere etxean konfinatzea tokatzen bada behintzat prest harrapatzeko. Iruditzen zait beherakada nabariko dugula.

“Trailera arte ondo joan da, erritmo onean aritu gara”

NOAUA! Bigarren konfinamendu baten mamua gainean dugu azkenaldian. Lehenengoa nola gogoratzen duzue?

Intza ile-apaindegia: Kolpe gogorra izan zen. Beldurra batetik eta urduritasuna bestetik. Egun batetik bestera itxialdi ziguten ile-apaindegia, baina aurreko egunean ia inor ez zen agertu ilea moztera. Itxialdia kokatzen aritu ginen egun haietan, langileak ERTEra bidalita.

Maiatzeko irekiera nola gogoratzen duzue?

Jendea zain zegoen eta gogotsu. Itzulera gogorra izan zen jende asko geneukalako eta edukiera kontua dela eta ezin genuelako nahi beste jende hartu. Kezkatuta egon ginen nola moldatuko ginen neurri berrietara, baina ire-



Lan egiteko modua aldatu zaiela esan digute Intza ile-apaindegian. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain, Gertuago.

INTZA ILE-APAINDEGIA

“Ilea bakarrik mozten hasi eta desastre asko egin zituen jendeak konfinamenduan”

kitzeko irrikitan. Azkenean ireki genuen, eta martxan jarri ginen. Ilea mozteko eta tin-

duak emateko beharra zeukan jende askok, eta beste askori konponketak egin behar izan genizkien, etxean ilea moztu zutelako askok. Mutil askoren kasua izan zen hori. Telefonoz deitu eta ordua hartzeko beharra erakusten ziguten askok, ilea bakarrik mozten hasi eta desastre handiak egin zituztelako.

Lan bolumena nolako da une honetan?

Nik esango nuke irailera arte ongi joan dela, erritmo onean. Orain beherakada nabaritu dugu, neurri handi batean herriatik ateratzeko debekua dela eta. Jende gutxiago dabil, baina berezitasun nagusia lan egiteko modua da. Erabat birpentsatu behar izan dugu antolamentua. Orduategian ere aldetak egin ditugu. Orain dena jarraian egiten dugu, eguerdiko itxiera egin gabe eta lehenago ixten dugu.

Bigarren itxialdi baten beldural zaretze?

Orain beherakada nabari dugu eta horrek beldurra sortzen du nahitaez. Etorkizunean zer izango den ez jakite horrek beldurra sortzen du ezinbestean.

Sutegik 15 urte: “Buru osasunerako oinarrizko zerbitzu batean bilakatu da liburutegia”

15 urte bete ditu irakurzaletasuna sustatzetik harago, herritarren elkargunean bilakatu den Sutegi udal liburutegiak. Oinarrizko zerbitzuan bihurtu da pandemia hilabeteotan. Badute zer ospatua, liburutegiko langileek lerrootan NOAUA!ri adierazi diotenez; “denon artean sortu dugun elkargunea”.

NOAUA! Neurri murriztaile berriek liburutegiari eragin diote? Printzipioz ez digu eragiten. Aforoarekin ez dugu arazorik, ekitaldiak auditorioan egiten ditugunetik oso ondo moldatzen gara. Solasaldiak oholtzan egiterakoan, eremu hori argiztatua soilik, soinu aldetik erabat isolatua, giro goxoa izatea lortu dugu.

Liburutegian ezin halakorik antolatu eta alternatiba aurkitu duzue.



Sutegiko udal liburutegia “denon artean sortu dugun elkargunea” dela esan digute bertako langileek.

UDAL LIBURUTEGIA

“Maileguekin lan gehiago egiten ari gara –egunean 80tik gora– eta horrekin oso pozik gaude”

Udan aukera hau aztertzen hasi ginen. Gure nahia beti izan da gure ekintzak liburutegian egitea. Baina ezinezkoa

zela ikusi genuen. Proba egin eta uste baino askoz ere esperientzia hobea izan da. Aretoa guretzat salbazioa izan da.

Aforoa kudeatzeko usurbilkultura.eus plataforma lagungarria izan zaizue?

Solasaldietarako baliatu dugu. Egia esan kostatzen zaigu egokitzeta. Gu oso ohituak gaude

aurrez aurreko harremanetara. Solasaldiei begirako edota ipuin kontaketerako gonbitak aurrez aurre banatu ohi ditugu. Aitortu behar dugu kostatzen zaigula aldaketa, baina lagundu digun tresna bat da, batez ere aforo kontuak eta kontrolatzen.

Konfinamenduaren ostean, ekainean zabaldu zenuten. Nola izan dira hilabeteak?

Poliki-poliki etorri dira herritarrek, baina era desberdinean. Orain da etorri, liburua hartu eta joan. Lehen hemen egoteko ohitura handiagoa zegoen, hitz egitekoa. Horrek liburutegiko dinamika asko aldatu du. Mostradorean zaude, bi aldeetara begiratzen duzu. Tristeia da ze hutsik dagoen, aforoa hain da mugatua. Halere maileguekin lan gehiago egiten ari gara-egunean 80tik gora-eta horrekin oso pozik gaude.

“Liburutegia oso leku segurua da”

NOAUA! Pandemia garai honetan ez du irakurzaletasuna apaldu, ezta?

Mailegu eskaera ez eta liburutegiaren falta sumatu zen lehen itxialdian. Pentsa, asteotan bigarren itxialdia etor zitekeelakoan, egunotan jendea liburu hornitzen hasia zen badaezpada. Esaten genien uzten badigute ez dugula itxiko. Jendeak esaten zigun ze mesede, ze lagungarri egiten zaion irakurketa. Udaberriko konfinamendu osteko itzulera oso gozoa izan zen. Ikusi genuen jendea ze gogoz, esker onez etorri zen, eta nola adierazi zigun zenbat bota zuten faltan liburutegia. Sumatu dugu jendea ze on egin dion

irakurri edota film bat ikustek; konpainia egin zioten, kezkak pixka bat urruntzen laguntzen zien. Aurreneko itxialdia hain bat-batekoa izan zenez, Eusko Jaurlaritzarik ere asko promozionatu zuten e-liburutegia, ez zegoen beste aukerarik. Baina konturatzen zara mundu guztia ez dela iristen digitalera, ez du nahi, ezin du. Heltzen zen une bat jendeak une oro inguratua zen teknologiatik deskonektatu eta aisialdirako beste alternatiba bat, liburua, papera izan zitekeena nahi zuela. Jendeak hutsune hori nabarmen sumatu zuen. Buru osasunerako oinarrizko zerbitzu batean bilakatu da liburutegia. Eta hori izugarri sumatu dugu.

Zer moduz egokitu zarete arau berrietara?

Denok bezala, arauetara erraz moldatu gara. Liburutegia oso leku segurua da. Dokumentuak itzultzean astebeteko berrogeialdia egiten dute. Distantziak mantentzen ditugu, aforoa kontrolatzen dugu, musukoak jantzita beti. Lehen ere atentzio oso pertsonalizatua zen baina orain gehiago aragotu da. Gerta dakizuke pixka bat itxaron behar izatea. Pena ematen du batzuetan denbora gehiago ezin eskaintzea pertsona bakoitzari, ilara osatzen baita batzuetan. Denbora aldetik mugatua zaude, jendea bada, ezin diogu eskaini nahiko genukeen denbora pertsona bakoitzari.

Nola aurreikuspen dituzue hurrengo hilabeteak?

Gure aurreikuspena, zerbitzua, aforoa pixka bat gehitzen joatea zen. Udan bage-nuen itxaropen puntu hori. Baina hori ezinezkoa izango dela ikusten da momentuz.

“Udazkena liburutegian” zikloa antolatu duzue asteotan. Bide honetatik segi nahiko zenukete ahal den neurrian?

Uda bukaeran planifikatu genuen ziklo hau. Momentuz, parentesi bat egingo dugu, ez gara ausartzen ezer planifikatzera egoera baretzen doala ikusi arte. Bitartean, gure oinarria den jendearekiko hartueman zuzen horretan indarra jartzen segiko dugu.

“Denon artean sortu dugun elkargunea, hori da ospatzeko duguna”

NOAUA! Pandemia betean 15 urte betetzera heldu zarete. Zer moduzko urtemuga eguna bizi izan zenuten?

Asko. Berez “Udazkena liburutegian” zikloa urriaren 24ko Liburutegiaren Egunarekin eta azaroaren 5eko gure urtemugarekin lotzen dugu. Urtero pastak edo bonboiak banatzen ditugu, baina orain ezin da. Halere aurtengoa oso egun polita izan zen sare sozialetan. Whatsapp bidezko zerbitzua dugu. Noizean behin mezuren bat bidaltzen diegu bertan ditugun erabiltzaileei. Esker ona emateko mezua zabaldu genuen. Buelta oso polita izan zen, esker on mezu izugarri pila jaso genituen.

Urtemuga honetan, zer duzue ospatzeko?

Liburutegiaren bueltan sortu den komunitatea: erabiltzaileak liburutegian bertan elkarri nola gomendatzen aritu izan diren ikustea, ze tertuliak sortu izan diren liburuak komentatzerakoan. Erabiltzaileekiko esker ona. Beti, baina bereziki orain. Hainbeste jasotzen



“Whatsapp bidezko zerbitzua dugu. Noizean behin mezuren bat bidaltzen diegu bertan ditugun erabiltzaileei”.

ERABILTZAILEEI ESKER ONEZ

“Hainbeste jasotzen dugu, hain da polita eta asegarria jasotzen dugun esker on hori”

dugu, hain da polita eta asegarria jasotzen dugun esker on hori. Konturatzen zara jendea-ri ze mesede egiten dion, ze lagungarria zaion liburutegia.

Zaletasun honek hainbat herritar lotu ditu.

Liburutegiaren bueltan sortu den komunitatea, denon artean sortu dugun sarea, elkargunea, hori da ospatzeko duguna. Azkenerako liburuak hartzeko aitzakian, elkargune bat sortu da. Askotan jende asko etortzen zaigu ez bakarrik liburuak hartzera. Agian euren artean zerbait dute komentatzeko...

15 urte bete ditu liburutegiak. Bizitza luzeagoa izan du ordea.

Liburutegiak garai batean norbanakoak ikasteari oso lotuta egotetik, espazio isil bat izatetik, elkargune bat izatera

igaro dira, non elkarrizketak dauden. Isiltasunarekin talka egiten du horrek. Gaur egungo liburutegiek gehiago josten dute espazio itxi eta isil bat izatera. Gainerakoa dinamiko, gune bizi bat izatera. Aurtengo udal aurrekontuetan gai hau aztertzekeo partida bat zehaztu zen.

Liburuzain hitza zaharkitua geratu da, askoz haratago doa zuen jarduna.

Gurea bada ofizio bat, beste asko bezala, beti dauden alaketetara adi gaudenak. Hemen langabezia berritze asko zigilatu ditugu, kurrikulumak egiten lagundu... Aholkukaritza zerbitzu hori jendeak izugarri eskertzen du, ez bakarrik gomendatzeko, baita laguntza eskaintzeko ere ordenagailuan... Liburutegitik haratago gauza asko galdetzen dizkigute. Eta gero konfiantza hori, gustuko ez dutena utzi eta beste hartzekoa. Askok deskubritzen dute idazle eta liburu pila bat, bestela ezagutuko ez lituzketenak. Teknologia ez du ematen hori.

“Gu ere oso zainduak sentitzen gara”

NOAUA! Covid-19 garai honek sare hori baldintzatu al du?

Mantendu dugu. Elkarlanean segitzen dugu esaterako Gaztelekuarekin, KzGunearekin, udal sail ezberdinekin, Udarregirekin beste era batera. Ikastolakoentzat ezin bisitatu antolatu baina guk bidaltzen ditugu liburuak hara eta irakurzaletasuna sustatzeko formazio lana banaka egiten dugu ikasleekin. Gizarte Zerbitzuek hitzaldi bat antolatzen dutela, hemen bibliografia jartzen da. NOAUA!rekin,

Esperientzia Eskolakoekin ere elkarlanean aritzen gara... Harro egon gaitezke gai izan garelako sare hori sortzeko eta zaintzeko, mimatzeko baina gu ere oso zainduak sentitzen gara herritarren aldetik.

Nola irudikatzen duzue etorkizuneko liburutegia?

Elkargune, sare hori sendotu nahi genuke. Auskalo nola eboluzionatzen duten liburutegiek. Lehen beldurra bazen liburu elektronikoa atera zenean zer gertatuko zen pape-

rarekin. Une honetan elkarbizitzan gaude eta pixka batean hala segiko dugula aurreikusuten dugu.

Whatsapp zerbitzura batzeko deia

Liburutegiak bueltan duen sarea indartzeko saiakeran, guneari buruzko informazioa whatsapp bidez jaso nahi duenari bertako langileekin hartuemanetan jartzeko gonbita luzatzen diote. Informazioa bidaltzeko baino ez da bide

hau. “Guretzat oso tresna baliagarria eta erabiltzaileentzat baita”, Sutegitik aipatu digutenez. Bestela, whatsapp zerbitzua ere 24 ordutan erabil daiteke. Hemen duzue liburutegiarekin hartuemanetan jartzeko bideen berri:

■ biblioteca@usurbil.eus

■ 943 36 06 92.

■ 688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

■ Facebook: “Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia”

■ Twitter: @usurbib

■ Instagram: Sutegi05

Hobari berriak, Gertu txartelarekin

Usurbilen bizitzeaz gain, herrian bertan erosteak sariak dakartza beste behin, Hurbilago merkatari eta ostalarien elkartearen eskutik. Hurbilagok, Udalarekin, Rural Kutxarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin sustaturiko Gertu txartela baliatu behar duzue horretarako. Esan beharrik ez den moduan, Hurbilagoko kide diren herriko saltokietan eta azaroaren 30era arte.

Erosketak guneotan egin, erosketok Gertu txartelarekin ordaindu eta trukean 50 euroa arteko hobariak irabazteko aukera izango duzue. Hurbilago Usurbilgo ostalari eta



Gertu txartelarekin ordaindu eta trukean 50 euroa arteko hobariak irabazteko aukera izango duzue azaroaren 30era arte.

merkatarien elkartek abian jarritako ekimena da honakoa, baina ez bakarria. Adi datozen

astei. Herrian bizi eta erosketak gogotik sarituko da urte amaiera honetan.

Mantenu lanak, Anerrekako pasealekuan

Azken hilabeteotan izan diren egun haizetsuetan zuhaitz adar batzuk jausi izan dira Anerreka parke inguruko ibilbidean. Usurbilgo Udalak egunotan sare sozialen bidez jakinarazi duenez, "mantenu lanak egingo ditu laster" aipatu eremu horretan.

Bere garaian Artzabalgo parkean egin zuten antzera, "Anerrekako parkean ere zuhaitzak bakanduko ditu Udalak. Freemanni motako astigarrrak handituz doaz pixkanaka, eta azken urteetan ugaritu



"Zuhaitzek eskatzen duten tokia emateko asmoz, bitik bat moztuko da gutxi gorabehera", Udalak aditzera eman duenez.

Zuhaitz batzuk kenduko dira "segurtasuna eta argitasuna" areagotzeko

egin dira adarren hausturak". Horregatik, Udaletik zehaztu

duenez, "zuhaitzek eskatzen duten tokia emateko asmoz, bitik bat moztuko da gutxi gorabehera, hala, segurtasuna eta argitasuna areagotzeko helburuarekin".

Xiberoko ikastolen aldeko otarrak eskatzeko epea zabalik da

Xiberoko ikastolak lagundu eta bertako ekoizpena ezagutarazi eta dastatzeko moduan jartzen digun elkartasun ekimena abian da berriz Euskal Herriko txoko ezberdinetan. Nafartarrak Taldekoen eskutik martxan da Usurbilen. Urte amaieran jaso ahalko dituzuen tokiko produktu goxoez hornituriko 3 otar ezberdin eskatzeko aukera duzue abenduaren 1era arte. Eskabideak ikaskoli.eus atarian bideratu ditzakezue edo bestela NOAA! Kultur Elkartearen egoitzan (edo telefonoz deituta 943 360 321).

Ahüzki

- Prezioa: 40 euro.
- Produktuak: xerriki pateak, ahate gibel berrosatua, eztiak, bixkotx poltsa artisanala, ardi gazna.

Irati

- Prezioa: 55 euro.
- Produktuak: xerriki pateak, ahate gibel berrosatua, axoa: xahalki xehatua saltsan, "Ezti Olha" eztiak (edo hau faltatzen balitz, "Bortüko" eztiak), bixkotx poltsa artisanala, ardi gazna.

Orhi

- Prezioa: 70 euro.
- Produktuak: ahate gibela, bixkotx gatzatuak, lukainka idorra, azafrai erreximenta (edo hau faltatzen balitz, "Bortüko" eztiak), gazna.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriñena
Iatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Haur eta gaztetxoek kirol ikastaroak bertan behera

COVID-19aren hedapena geratzeko neurri murriztaile berriak adostu dituzte Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek. Kiroldegiei begirako murrizketa berriak iragarri zituzten iragan astean; astelehenaz geroztik indarrean direnak. Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez, honako hauek:

■ Bertan behera geratu dira 6-16 urte arteko zuzenduriko ikastaroak; LH1, 2, 3 eta 4ko igeriketa ikastaroak eta zumba gazte taldea. HH4 eta HH5eko igeriketa saioak bai, mantendu egingo dira. Igeriketa ikastaroak etenda daudenez, "gainerako erabil-



Igerilekuko aldageletan ezingo da dutxatu.

KIROL IKASTAROAK

Bertan behera geratu dira 6-16 urte arteko zuzenduriko ikastaroak

tzaileek ordu horietan txanda eskatu ahal izango dute",

udal iturriek aditzera eman dutenez.

■ Igerilekuko aldageletan ezingo da dutxatu. Igerilekuko dutxetan kloroa kendu, aldageletan lehortu eta aldatu baino ezingo da egin, eta maskara jantzita une oro.

Gazte Egun egokiturako egitaraua prest

COVID-19ak ere ekimen honen antolakuntzan eragin du. Aztarrika Gazte Asanbladak bizi dugun osasun krisialdira egokitu du aurtengo Gazte Eguna. Ekitaldiok iragarri ditu:

Azaroak 27, ostirala

■ 19:00 Solasaldia Askatasuna plazan: "Usurbildarron gazte ahotsa: pandemiaren ondorioak gazteengan".

Azaroak 28, larunbata

■ 11:00 Solasaldia Askatasuna plazan: "Gazte espazioak eta autogestioa".
■ 18:00 Mobilizazioa Mikel laboa plazan: "Gazteon bizi proiektuekin zer?". Antolatzailea: Aztarrika Gazte Asanblada.

Urte amaiera girotua Santuenean

Ekitaldi anitz izan ohi dugun abendua ate joka dugu. COVID-19aren eraginez aurten, ohiko hainbat ekitaldi ez dira ospatuko, beste batzuk ezohiko osasun krisialdira egokituko dira, edota ekimen alternatiborik ere izango da. Santuenea Kultur Elkartetik auzoko urte amaiera prestatzen hasiak dira. Lehen xehetasunak helarazi dizkiote NOAUA!ri.

Kabi apaingarrien tailerra

Abenduaren 12rako gabone-

tako kabi apaingarrien tailerra abiarazi asmo dute plazan, segurtasun neurriak hartuta; mahai bakoitzean 6 pertsona bildu ahalko dira beharrezko tartea gordeta. "Aurrez deia zabalduko da auzoko atari guztietan auzotarrei parte hartzerantz gonbidatuz".

Zuhaitzaren argiztapena

Abenduaren 18an 19:00etan tailer horretan landutako sortze lanekin apaindu eta haurren parkean kokatuko den zuhaitza argiztatuko dute.

Apaingarriak zuhaitzean zintzilikatzera animatzen dituzte herritarrak, bereziki txikiak. Eta gero txistor jana antolatu dute jubilatuen eta elkarteko taberna atarian, kanpoan. Hau ere egungo segurtasun neurrietara egokituta. "Mahai eta aulkiak elkarrekiko tarte handia dutela jarriko dira eta mahai bakoitzean gehienez 6 pertsona eseriko dira. Ezingo dira mugitu. Jakien bandejak bertaratuko dizkiete antolatzaileek", Santuenea Kultur Elkartetik ohartarazi

dutenez.

Musika, egunero

Gabonei begira; urte garai honetako musikarekin girotua dute egunero bi orduz Santuenea.

Olentzeroren bisita

Eta Olentzero ere bisitan joango omen zaie abenduaren 24an. COVID-19 garaiotan etengabe gertatzen ari den moduan ordea, "aurten neurri bereziak hartuko dira", iragarri dute.

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

ARRANDEGIA

PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI

650 31 31 91 USURBIL

Gure Esku: “Jendeari ilusioa transmititu nahi diogu”

Erreferendumaren aldeko sinadurak bildu eta Tripontzia saltzeko postua plazara ateratzen hasia da Usurbilgo Gure Esku taldea.

Zergatik erabaki duzue plazara ateratzea?

Gure Esku Usurbil: Zenbait ekimen baziren prestatuta urtean zehar egiteko baina denak hankaz gora geratu dira, baina egin daitezkeen guztiak egin behar dira. Momentu oso gogorak dira denontzat. Jendeari ilusioa transmititu nahi diogu, gure leloa baliatuz; altxa!

Zer egin ahaliko dugu zuen postura hurbilduta?

Erreferendumaren alde sinatu edota Tripontzia, urteroko Gure Eskuren loteriarako txartelak eta taldeari laguntza emateko zenbait material ere erosi; tartean, 2 euroko eskumuturrekoa.



Tripontzia saltzeko postua plazara ateratzen hasia da Usurbilgo Gure Esku taldea.

GURE ESKU

“Momentu oso gogorak dira denontzat. Jendeari ilusioa transmititu nahi diogu, gure leloa baliatuz; altxa!”

Kaleko bizitza berreskuratzeko saiakera ere bada ezta?

Erreferendumaren aldeko sina-

dura online ere eman daiteke baina uste dugu garrantzitsua dela sozialitatea, komunitate sentimendu horri eustea. Komunitatea kalean ere egiten da eta horregatik presentzia hau plazan.

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa duzue martxan. Zer moduz doa?

Uste baino hobeto joan da gaur

goizekoa. Kontua da ahalik eta sinadura gehien biltzea. EAEko eta Nafarroako parlamentuetara eramango dira. Babes handia izatea oso garrantzitsua da. Inoiz baino arrazoi gehiagorekin behar dugu guk erabaki eta Europa barruan baina gurea den norabidea markatu, bizi duguna bezalako egoera larriei aurre egiteko. Burujabetza eta erabakitze eskubidearen garrantziaz jabetu behar gara. Pandemiak garbi erakutsi du hori, hain zabal eta handia den autonomia hori, erabakitze eskubidea nola kendu ziguten egun batetik bestera.

Plazara gehiagotan ateratzeko asmotan zarete?

Asmoa da hemendik urte amaierara ahalik eta asteburu gehienetan ateratzea. Gel pote handi bat erosi dugu eta hori gastatu arte hemen egongo gara.

Hamaika gara, erreferendumaren alde

Herritarren garaia da. Indarrak batu eta aurrera egitekoa. Gure bizitzetan eta komunitatean eragiten duten auziei buruz erabakitze eskubide osoa dugu, eta horretarako, erreferendum bidez erabakitzea posible egingo dugu. Bidea hasia dugu eta hamaika garabertan bat egiten ari garenak.

Bizitza duina nahi dugu denontzat, eta ezinbestekoa dugu, beraz, bizitza erdigunean jartzea, eta zaintza lanak modu orekatuan berantolatzea, pertsonen arteko harremanak eta lurraekin eta gainerako animaliekin ditugunak eraldatzea. Justizia soziala iparrorratz, ekonomia herritarren beharren arabera antolatu nahi dugu, enplegu eta pentsio duinak geureganatu, kalitatezko osasun sistema bermatu, hezkuntza propio eta buruja-

be bat ahalbidetu, gorputz eta identitate guztiak aske bizitzeko baldintzak sortu, indarkeria matxistari, LGTBI+ fobiari eta diskriminazio orori aurre egin, eta kultura eta hizkuntza aniztasunarekiko begirunez, euskara indartu. Gure etorkizun politikoa eraikitzea gure ardura da, eta hemen erabaki behar dugu.

Elkarrekin bizi gara, eta elkarrekin erabakiko dugu, edozein dela bakoitzaren sorterrria edo hizkuntza. Inor ez da ilegala; eskubide zibil eta politikoak bertan bizi garen herritar guztionak dira, eta historikoki ukatu zaizkienei aitortu eta bermatu egin behar dizkiegu. Zentzu horretan, emakumerik gabeko erabaki guñeek ez dute zilegitasunik.

Erabakiak geroz eta gutxiagoren artean hartzen dituztenak daude balantzaren alde batean; eta guk herritarren indarra jarri

behar dugu bestean. Atzerakada demokratikoei herritarrok ahaldunduta, bat eginda eta demokrazian sakonduz erantzun behar diegu. Izan ere, komunitate batek bere burua gobernatu nahi duenean, bere borondatea muga bakartzat hartuta, erabakitze ahalmena izan behar du, herritarrok erabakitzea baita gatazkak kudeatzeko eta bakea eta bizikidetzaren bermatzeko giltza. Elkarrekin erabakitzeak egiten gaitu herri.

Herritarrok gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu. Gure lurraldearen estatus politikoa eta beste lurraldeekiko harremanak menpekotasunik gabe eta askatasunez erabakitze aukera izan nahi dugu. Egiaz, errealitate ezberdinak bizi ditugun arren, burujabetza sakontzeko borondatea konpartitzen dugu.

Ez dugu edozein modutan

erabaki nahi, oinarri batzuen baitan baizik: informazio gardentasuna, eztabaida publikoa, deliberazioa eta kontzientzia kritikoa sustatuz, eta aukera politiko guztiei bide emanez. Erabaki nahi dugu, betiere, guztion oinarriko eskubide eta askatasunak bermatu eta zabaltzeko baldin bada, eta inoiz ez horiek murrizteko edo gutxiengoen aurka egiteko. Funtsezkoa da elkarbizitza eta kohesioa erabaki guztien oinarri izatea, denok parte izan gaitzen.

Urrats eraginkorrek egiteko unea da, eta eragile, erakunde eta herritarrokelkarrekin egin behar dugu bidea. Denok dugu tokia bide honetan, eta norberak bakarrik bete dezake berea. Guztion ardura da. Eta herritarrok martxan gara.

Usurbilgo Gure Esku taldea

ETXEBIZITZA**Salgai**

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera.678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Nissan Note 1600 gasolina koxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626735354

Kale Nagusia garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CV info@quantum.eus](mailto:CVinfo@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingelesezko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko

lanak, umeen zaintza edo heldue-na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuok deitu: 631 489 128.

Astehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetara eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nurria. Domatua. Burukoak, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago, telefono hauetan: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehene ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaia! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 19 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 20 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astehena 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astearte 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 26 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

Larunbata 28 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda azaroa

20 ostirala

- **Gozogintza tailer txikia.** 18:00etan Santuenea Elkartearen egoitzan (aurrez eman behar zen izena).
- **NOAUA!ren Kulturaldia: Anari, Malen eta Maddi.** 19:00etan Sutegin. Sarrerak agortuta daude.

21 larunbata

- **NOAUA!ren Kulturaldia: Korrontzi eta Orbeldi Dantza Taldea Sutegin.** Ordua: 17:30 / 19:30 (bi emanaldi). Sarrerak 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. 8 eurotan aurrez NOAUA!ko bazkideek NOAUA!ren egoitzan.

22 igandea

- **NOAUA!ren Kulturaldia: "Fadoak entzuten zituen gizona" antzezlan.** 18:00etan Sutegin. Sarrerak 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. 8 eurotan aurrez NOAUA!ko bazkideek NOAUA!ren egoitzan.

Igande honetan 'Fadoak entzuten zituen gizona' antzezlan Sutegin

Antzezlan bidaia moduko bat da. Zineman *road movie*-ak dauden moduan, hau *road play* bat izango litzateke. Mikel kamioilaria da, eta lan kontu batengatik Lisboara bidean doa. Bidean, Ander izeneko mutil bat jasoko du. Ander Huelvako Ayamonte herrira doa fado lehiaketa amateur batean parte hartzera. Kasualitateak kasualitate, Anderrek eta Mikelek lehenagotik eza gutzen dute elkar, baina urteak dira ez dutela elkarren berri izan.

Azaroak 22 igandea

- 18:00 "Fadoak entzuten zituen gizona" antzezlan Sutegiko auditorioan.



Sarrerak Lizardin edo NOAUA!n eskura daitezke.

- **Antzezleak:** Iñigo Aranbarri, Ane Gabarain, Kepa Errasti.
- **Sarrerak:** 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. Aurrez 8 eurotan eskuragarri NOAUA!ko bazkideentzat, soilik NOAUA!ren egoitzan.

Anariren kontzerturako sarrerak agortu egin dira baina Korrontzi ikusteko badira oraindik

Azaroak 21, larunbata

- 17:30/19:30 Korrontzi Dantzan Orbeldi Dantza Taldearekin. Bi emanaldi Sutegiko auditorioan.
- **Sarrerak:** 10 eurotan aurrez Lizardin eta NOAUA!ren egoitzan. 8 eurotan aurrez NOAUA!ko bazkideek NOAUA!ren egoitzan.



Korrontzi taldearekin arituko dira Orbeldikoak.

Datozenak

Gazteen mugikorren erabilpenari buruzko hitzaldirako

izen-ematea ixtear

Gaurkotasun handiko gai hau ahotan hartuko duen hitzaldia antolatu du Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak azaroaren 24rako, 17:00etako ikastolako jangelan. Adi ordea, ostiral hau, azaroaren 20a baino lehen eman beharko da izena usurbilkultura.eus atarian. 68 pertsonentzako lekua egongo da. Bidelagun Elkarteak bideratuko du saioa.

"Esnatu naiz"

kabareta Sutegin

Euskaraldiko egitarauaren barruan, Donostiako Poltsiko Antzerkiko Sor-kuntza Deialdian aipamen berezia jasotako ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da.

Azaroak 28 larunbata

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- **Sarrera:** doan azaroaren 26a baino lehen, usurbilkultura.eus atarian.
- **Edukiera:** 78 pertsonentzako lekua.
- **Antolatzailea:** Euskaraldia Usurbil.

Uraltz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraltz@uraltz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

**PREZIORA GEHIEN
HURBILTZEN
DIRENEK, PASA GABE,
ESKAPARATEKO
BERAIEN OPARIA
AUKERATUKO DUTE!**

• U S U R B I L •

preziyo juxtua

AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 12RA

**Telebista bat, patinete elektriko bat,
urdaiazpikoa, haurrentzat arropa,
askotariko jaki eta edariak, arropak,
haurrentzako jostailuak, etxeko tresnak...
eta hurbileko beste dozenaka produktu**

PARTE HARTZEKO:

- 1 Erosi Usurbilgo dendetan**
- 2 Eskuratu parte hartzeko txarteltxoa**
- 3 Asmatu Zubiaurrenea 3 kalearen atzealdeko lokalean kokatua dagoen eskaparatearen balioa, pasatu gabe**
- 4 Bota txarteltxoa dendako kutxan edo bidali balioa preziyojuxtua.hurbilago.com helbidearen bidez**

KOMERTZIO PARTE-HARTZAILEAK

AGINAGA SAGARDOTEGIA • AITZAGA TABERNA • AIZPURUA OKINDEGIA • ALDAMU OINETAKO KONPONKETAK • ALKARTASUNA NEKAZAL KOOPERATIBA • ANE ILEAPAINDEGIA (ARTZABAL) • ARRUTI HARATEGIA • ARTZABALGO BASERRI-JATETXEA • BIXEN ILEAPAINDEGIA • BORDATXO TABERNA • ESNAOLA SUPERMERKATUA • IMANOL TXAPARTEGI HARATEGIA • N.I. ILEAPAINDEGIA • INTZA ILEAPAINDEGIA • IRATZE NATUR DENDA • ITURRALDE FARMAZIA • ITZIRA ERAIKUNTZAK • JUANTXO BURDINDEGIA • KAFFA KAFETEGIA • LAUKOTE • LAUROK LIBURUOENDA • LIZARDI LIBURUDENDA • LURDA MERTZERIA • MARIJE JANTZIDENDA • MIKEL ARRANDEGIA • OPIŁ GOXO • OTAR GOXO • SAIZAR SAGARDOTEGIA • TXIRRISTRA TABERNA • USURBIL OPTIKA

UrbilBlackFriday

Doako Urbil App-ak Black Friday honetan eskaintzen dizkizun sariak ezagutu itzazu.



Zure tote bag-a eskuratu.

Bezeroenganako Arreta Gunera hurbildu eta Urbil App-ko QR kode identifikatzailea erakutsi. 11/27ra arte edo izakinak amaitu arte (600 unitate).



100€ko opari txartel bat irabazi.

Sustapenaren kupoia aktibatu Urbil App-an eta 100€-ko 5 opari txartelen zozketan parte hartu. 11/27ra arte.

#Urbilover izateak bere abantailak ditu!

Urbil App-a deskargatu eta goza ezazu honetaz zein beste hainbat eskaintzetaz.

BLOG



urbil.es